

MARIHUANA. ZERTAZ ARI GARA?

Cannabis Sativa marihuana-landareari ematen zaion izen zientifikoa da eta, orobat, landare horretatik ateratzen dira haxixa eta marihuanaren beste deribatu batzuk. Beste kanabinoide anitzen artean badu tetrahidrokanabinola (THC); substantzia horri efektu psikoaktibo edo psikotropikoa ematen dion konposatua, modu batean baino gehiagotan kontsumitzen denean (erreta, digestio-aparatutik...). Halaber, baditu balizko efektu farmakologikoak izan ditzaketen beste kanabinoide batzuk, hala nola kanabidiola (CBD), kanabinola (CBN), kanabikromenola (CBC), etab.

Nola kontsumitzen da?

Marihuana erretzen denean, THCa eta beste produktu kimiko batzuk biriketatik odol-hodietara igarotzen dira eta handik gorputzaren gainerako ataletara, baita burmuinera ere. Ondorioak ia berehala hasten da sumatzen marihuana erretzailea.

Marihuanaren ondorioak zertxobait atzera daitezke baldin eta elikagai edo edari moduan kontsumitzen badira –eskuarki, 30 minutu eta ordubete bitartean–, lehenik digestio-sistematik igaro behar baitu. Ondorioak ez baitira berehalakoan sumatzen, THCa kontsumitu nahi dena baino gehiago kontsumitu ohi da.

Kontsumo-esperientziak

Azken urteotan gizartean errotu dela esan daiteke, gutxiago edo gehiago, haren erabilera ludiko eta terapeutikoagatik. Alabaina, gaur egun osasun publikoko arazo bilakatu da.

Drogen kontsumoa eta abusua eta, hartara, marihuanarena, kontsumoarekin lotutako arrisku eta onuren eta haiek onartzeaz norberak duen hautematearen arabera dira, gutxiago edo gehiago eta hautemate pertsonal hori, berriz, oso lotuta dago hautemate sozialarekin.

Gozatzea da helburu, pozarren agertzea, barre egitea, erlaxatzea, norberaren egoeraren, dosiaren, testuinguruaren eta abarren arabera. Alabaina, batzuetan antsietatea, beldurra, mesfidantza, izua sentitzen da. Zaila da zer kontsumitzen den jakitea.

Marihuanaren kontsumoarekin lotutako arriskuak kontsumo-motarekin lotuta daude (esperimentala, integratua edo gehiegizkoa). Osasunaren gaineko ondorioez haratago, kontsumo-motak substantziarekiko harreman-moduetan aldaketa zenbait eragiten ditu.

Beste batzuekin batera egiten den hasierako kontsumoa, pixkana-pixkanaka, besteen "alboan" egindako kontsumo bilakatzen da eta, orobat, norbera helburu izatera igarotzen da, ez horrenbeste esperientziak partekatzeraz.

Hala, bereziki ongi pasatzeko erabiltzen den droga bat arazoak konpontzeko, "funtzionatzeko" edo, "normal sentitzeko" balio duen droga bilakatzen da.